



Axular chaharraz kondaira pollit zonbeit

Andreak eta jaunak,

Hemen aurthen, Eskualzaindiaren ordain gisa Axularren egintzen eta Axularren izenaren ospatzea, ongi dela iduritzen zait. Axular, badakizue guziek Urdazurikoa zela, bainan Urdazuritik gazterik urrundu zen eta egin zituen bere ikhaskuntzak Irunan, Tarben eta bertze lekhu batzuetan, — ez naiz ongi orhoitzen nun —, eta azkenik apheztu zen. Apheztu-ta igorri zuten Saralat eta Saran izan zen aphez-nagusi eta han urtheak iragan zituen, bai-eta, han zelarik, egin zuen liburu eder bat : GERO. Liburu hori asko lekhan hedatua da eta gutaraino heldu zaiku, nahiz-eta hiru-ehun urthez goiti badituen argitaratu zuela. Eta azkenean Axular ere hil zen, bertze guziak hiltzen diren bezala. Bainan haren orhoitzapena ez da oraino hil, ez bere liburuan, — gauza jakina, — ez eta herriko orhoitgarrietan. Hortakotz dut nik uste gauza egokia daitekela, gaur, hemen herriak hartaz zer dion agertzea. Huna beraz, nik askotan entzun izan ditudan zonbait gauza. Axular, badakigu, gizon aipatua, herriaren aitzinean, gizon haundia, bertzeak ez bazalakoa eta, mendeak iraganago eta nik uste haundiago Axularren orhoitpena.

Hola bada, mintza naiz han Saran bezala, nihaurek ere ba ahal dakit zer mintzaira derabilan : batzuetan Ataungoa, bertzeetan Sarakoa, bertzalde nik eztatit nungoa. Baina barkhatu.

Eta bada, diotenaz, Axularri behartu zaion Salamankara juaitea bere ichtudioen egitera. Bainan Salamankan urtheak iragan behar ukhan zituen bere ikhaskuntzen bururatzeko; eta bazen (batzuek diote Salamankan berean; bertzeek Saratik hurbil Sarako lezeetan) debrua. Harek ere bazuen eskola eta harekin ikhasleak hartzen zituen eskola guziak. Ichtudioak debruarekin egiten zituztelarik, ez zen hainbertze gusta, ez diruz ez-eta urthez, eta Axularrek eta haren anaia Atarrabiok uste ukhan zuten Sa-

Huna lapurtar mintzairean emana, Barandiaran jauna Arranzazun egin zuen mintzaldi ederra,

rako lezean hobeko, zutela beren ichtudioen egitea eta joan ziren debruaren eskolara. Eta baziren bertzeak ere debruaren eskolan han beren eskolen egiterat juanak. Debruak ez zuen diru beharrik, hortako ez zioten debruari deus pagatzen. Ba ! deus-ere ! zerbait ba, urthearen buruan menderen - mendetako haren gelditu behar zen eskolier heietarik bat. Ha ! Juan zen urthea, eta oraino ez dut erran — orai erraiten dut — urthe batez eskola guziak hartzen ziren debruaren eskolan. eta Axular et haren anaia loriatuak zauden, eskolak egin ondoan, hantik atheratzeari eta bertze lagunak ere berdin, naski; bainan bazuten arrangura bat sarthua. geroago-ta-barnago. Hau zen :

— Gutarik bat hemen gelditu behar, bethi debruaren eskuko.

Orduan, heldu zelarik hantik juaiteko eguna, debruak erran zeien :

— Badakizue batek nerekin gelditu behar duela.

Bertzeak :

— Bai, jauna.

— Orduan zuek ikhus, nor nerekin den ene meneko egonen bethikotz.

Etan han ziren eskolierren artean, chotchak athera zituzten eian nor geldituko zen, eta horra, zorigaitzez, nun chortea Axularren anaiari erori zen; orduan Axularren anaia, Atarrabio behar han gelditu. Bainan Axular urrikaldu zitzaion, biziki bihotzberakoa eta berekilakoak oro maite zituen. Eta oroz gainetik bere anaia. Eta anaia ikhusirik ilhun-ilhuna, erran zion :

— Atarrabio, nere anaia, ez zitela hola ilhunt, ni geldituko naiz zure orde, zoazila gure burhasoen etchera eta, heier errozute nola gelditu naizen bethikotz debruaren meneko.

Bainan orduan erran zeien bere lagun guzieri Axularrek :

— Begira, zuek atherako zaizte eguerditan, chuchen lerro-lerro, bata bertzearen ondotik, eta bakhotchari galdatuko dio debruak : Nor gelditzen da enekin ? Eta erranen duzue bakhotchak : ene gibeletik heldu dena. Hori erran behar duzue denek.

— Bai, muthil, erranen diagu.

Tenora ethorri zelarik, kampoat abiatu ziren eguerdi bethan, behe-retik goiti han ziloan. Eta debrua han zen bethi banean, bainan, ziloaren ahorat heltzen zenari galdatzen zuen :

— Nor gelditzen da nerekin ?

Eta lehenak ihardetsi zion :

— Ene gibeletik heldu dena.

Bigarrenari ;

— Ta zu, gelditzen zare ?

— Ez, nere gibeletik heldu dena.

Hirugarrenari :

— Ta zu ?

Eta hola azkena artio, eta azkenak erran zion :

— Ez, jauna, nere gibeletik heldu dena.

Hura Axular zen. Axularri galdatu zion :

— Nor gelditzen da ?

— Ah ! nere gibeletik heldu dena.

Eta jalgi zen. Axularren gibeletik nola heldu baitzen haren itzala, eguerdiko iguzkia gain-gainea izanki-eta eta itzala behe-rean oraino ziloan, leize barnean, sast ! debruak itzalari gainerat jautzi egin zion, atchewan zuen eta hartu-ta berekin ereman bethikotz. Eta Axular gelditu zen itzalik gabe. Axular gaizoa bethikotz itzalik gabe gelditu zen.

Badakizue orai, gure mende huntan, itzalak ez duela deus erran nahi; baina, lehen, lehengo mendetan ez zen hala. Itzala, — erromatarren demboratik gure herrietan sarthua den sines-tearen arabera, — itzala da bakhotcharen arima. Eta horrek erran nahi du Axular gelditzen zela arimarik gabe. Hala izan zitaken, baina gero ikhusiko dugu ez dela osoki egia. Hala Axular athera zen ongi eskolatua eta bihotz onekoa eta biziki buru argikoa, eta jada erran dudana, egin zuten Sarako aphez-nagusia eta han bizi zen eta han hil zen, baina egin zuen lan ederra. Bazuen indar izigarria; behin, goiz eder batez, udako goiz eder batez ethorri zen haren ikhustera gizon bat, ederki emana, eta lehen agurra egin zion eta, hala solasean ari zirelarik, biak Sarako lander beha, eta, ikhusirik nola hango landetan ogiak onthuak ziren, gorri-gorria, eta iguzki ederra baitzen, erran zion lagun horrek Axularri : Ha ! zer landa ederrak, zer uzta nasaiak !

Ta Axularrek erran zion :

— Bai hala da, eta orduan haren lagunak.

— Baditut nik zaldi ederrak, horiek ongi joko dituztenak.

Badakizue leheneko denboretan behin, orai ere bai toki batzuetan, zaldiez jotzen dituztela ogiak; baina Axularrek bazakien nor zen han ethorria zena haren gana eta zer erran nahi zuen hitz hoietan haren lagun horrek, ta erran zion :

— Bai zuk izanen dituzu zaldiak... baditut nik ere, bai, makhila pollitak zaldi horien beren bidean itzul-arazteko.

Eta deus bertzerik erran gabe, laguna juan zen. Lagun hori nor zen ? Haren anaia Atarrabio. Hara, suerte gisa bitchia. Bat ona, biziki ona : bertzea, — debruak eskolatuak izanki biak arren, debruaren eskola bakharrarekin gelditua Atarrabio, gaistoa. Eta hola, bazkal-ondoan erran zion gelariari Axularrek; « Ikhus-ten baduzu Larrun gainean lanho bat, erradazu ».

Eta horra nun Axular joan zen lo egitera : eta berehala deitzen du gelariak.

— Larrun gainean lanho ttiki bat ageri !

Jeiki zen, joan zen han Bolanteiko zelhaira, bere liburua eskuan, othoitz egitera, Jainkoari othoitz egitera, bere anaia gais-toaren zaldiak ez ditezen ethor herriko ogien joiterat. Othoitzean ari zelarik, heldu zen oro izigarri batekin harri erauntsia Lar-run behera, iduri-eta Atarrabiok behar zuela irabazi. Bainan hartarik ari zen-eta, ostikoan, bere oinetakoak airez-aire botatu zituen hain urrun nun ez baitzituen gehiago ikhusi. Bainan harri-rik ere ez zen herriko landetara erori. Holakoa zen Axularren ahal izigarria.

Ordea Axularrek ere hil behar noibzait : zahartu zen eta laster hiltzea uste zuen; orduan nahi ukhan zuen bere ari-ma berekin ukhan hil-orduko. eta nola arima, erran nahi baita itzala itzulzen baitzitzaion bakharrik meza erditsutako, nahi ukan zuen meza erditsutan hil eta bere zerbitzari. Saratarrari erran zion ; — Oizu, bihar meza erditsutan chuchen hilen nauzu.

— Ez, jauna, erhotu ahal zira !

— Ez, ez, ez...

Eta erran zion hari zertako eta zergatik hori galdatzen zion eta orduan zerbitzariak hitzeman zion :

— Bai jauna, hilen zaitut. Eta mezan han zen, harma es-kuan, zerbitzaria, noiz hil behar othe zuen bere nagusia, eta me-za erditsutan bere buruari :

— Bainan holako gizon saindua, zertako nik kil behar dut ? Ez dut, ez, hilen — eta itzuli zen eta hantik urrundu. Axularrek erran zion :

— Zertako ez nauzu hil.

Eta bertzeak :

— Jauna ! nik sekulan ere ez zaitut hilen !

— Bainan ezta kizu ni hiltzen banaiz itzalik gabe, ez naizela zerurat sartzen ahal ?

— Berraz, orduan bihar hilen zaitut. Ondoko egunean juan zen, harma eskuan, han egon zen bere aphezaren hiltzeko chede-tan. Bainan orduan ere bururat ethorri zaion :

— Baina, baina nola hiltzen ahal dut nik gizon hau ? Ez, ez dut hilen sekulan.

Berriz ere Axularrek :

— Bainan, muthil, zertako ez nauk hil ? Bihar, hil nezak.

— Bai, hilen zaitut bai.

Hirugarren aldikotz, bere harma eskuan, hilen duta, ez duta hilen, hilen dut, azkenean, sast ! begiak hetsi-ta Axularri tiroa eman, eta horren gatik, Axular bere itzalarekin hil zen, orai zeruan baita.

Ikusten duzue bada herria nola orhoitzen den Axularrez. Gehiagokorik ere bada, Bainan oraikotz badut aski erranik. Bakharrik erranen dautzutet badela Eskual-Herrian gai hortarik asko kondaira. Aralarre mendian lehen aldikotz entzun nuen iektorio bat eta han erraiten zuten :

Bazen dembora batean, han emazteki bat. Emazteki bat biziki ederra agertzen zen Murako mendian. Gizon bat harat igan zen eta biek, gizonak eta emaztekiak elgarrekin ezkonturen zirela hitzeartu zuten, bai-eta ezkondu ere ziren, ta han Beasaingo mendian, hango bazter-etche batean bizi ziren biak. Ukhan zituzten haurrak. Zazpi. Bainan ezkondua baitzen emazteki hura, erran omen zion bere gizonari ezkontzean ;

— Bai, ezkondua naiz zurekin, bainan gauza bat behar duzu egin. Sekulan ez nuzu behar ni elizan ikhusi. Ene haurrak ere ez.

Gizonak, maite baitzuen, hitzeman zion, eta hala gerthatu ere zen. Ez zen emaztekoa sekulan elizara joaiten, gizona bai : bazituzten zazpi haur, ez zituzten bathaiatu, bainan gizonak bere baithan :

— Bainan, bainan, zer girichtinoa naizena ni ? Zazpi haur eta bat ez bathaiaturik ! Bai ! hartuko ditut haurrak bere amarekin orgetan eta eremanen bihar elizara.

Eta hala egin zuen. Estekatu zituen berak orgetan ta abiatu zen. Bainan, abiatu orduko, emaztekiaren estekak su-garretan erre ziren eta bera airez-airez joan, erranez :

— Nere haurrak mundurako, ni Mururako.

Hori da Mari-Munduko. Toki batzuetan, Mari-Urraka Anbotokoa ; bertze toki batzuetan Tchindokiko Mari, bertze batzuetan Puiako Maia, denak berdin, bainan zazpi haur horietarik bi zaharrenak ziren : bat Axular eta bertzea Mikelats, bat ona

bertzea gaistoa, munduan hala dire. Ama batetarik ona edo gaistoa, ama beraren semeak bat, osoki ona eta bertzea osoki gaistoa. Hara bada nola lehen-lehendani Eskual-Herrian ziren khondagaiak, Axularrez eta haren anaiak khondatuak izan direnak gero demborarekin.

Orai erran nezake bertze gauza bat khondaira hau estakuru. Khondagaiak ikhusi ditugu hedatuak ez orai, bainan lehengo ere, Eskual-Herrian. Behar bada Eskual-Herriatik urrun. Askotan Eskual-Herrian bildu ditugu holako gai asko ustez-eta herrikoak direla, eta, gero, demborarekin, behar bada, jakiten dugu ez direla arras hemengoak. Batzuetan gerthatzen da, badi-rela hor munduan hedatuak aspaldi - danik, behar bada biz-pa-hiru aldiz munduaren itzulua eginga dutenak. Hara bada gai batzu hemen zabaldu eta bertze asko tokitan bezala zabaldurik dabilzanak. Hortakotz behar ditugu, guk, hemen Eskual-Herrian bildu ahal ditugun gai guziak, denak, ahal badugu. Gero ikhusiko dugu zoin gai diren hemengoak bakharrak, zoin diren hunat ethorriak, nola-nahiz ere batzuek eta bertzeak eskualdunek hartuak eta beretzat erabiliak. Horra nola ja erran dudan bezala, gertha laiteke hemen dabilzan gai batzuek urrundik ethorriak izatea eta behar bada mundua askotan itzulikatua dutena.

Behin Kortezubin, Santimamineko zilhoan lanean ari ginelarik, Arizandi, Eguren eta ni, hantche gizon batek, hango adichikide batek, Lezikako nausiak erran zuen :

— Bada hor, Tchapelan leize bat, « leize ederra » erraiten dioten leize bat, Nabarniz alde hortan da. Han gerthatu dira gauza batzu nun baitzinukete zuek zer har !

Eta nik erran nion :

— Bai, nahi duzuia egun bazkal-ondoan biak juan gaiten lekhu hartarat ?

— Bai, joanen naiz.

Eta biak joan ginen eta petik goiti, gindohazilarik zilo hartarat, bide-erditsutan bazen zilo handi bat eta erran nion :

— Zer zilho da hau ?

Ta erran zautan :

— Horiek, lehengo demboretan, basurde eta otso harrapatzeko tranpa-ta zilhoak ziren.

— Eta nola hatzemaiten zituzten hemen basurdeak eta otsoak ?

— Ez duzu zuk sekulan entzun zilho huntako khondaira ?

— Ez.

— Bai, erraiten dute hemen bidean, otsoak ebiltzen ziren demboran, egiten zutela zilho haundi bat, barnez ahoan baino zabalago; eta, gero, aho hori hesten zutela, abarrez estaltzen. Ta basurdea edo otsoa han igaiten zelarik, ustez-eta zangoa lur gogorrean emaiten zuela, sartzen zen tranpan eta han gelditzen bethikotz. Eta, gero, norbait ethortzen zelarik, berehala hiltzen zuen. Hola, erran zautan gizon harek ichtorio hori :

Behin, hemen, Omako ziloan, omen zen otso bat eroria; noizetik noizerat goiti jauzi egiten zuen eta burua kamporat atheratzen, eta ez baitzuen nun bere aztaparrak berma, erortzen zen. Ta hola, egun batez, gizon bat heldu zen aitzurra eskuan, bidean petik gora eta ikhusi zuen nola jautzian burua athera zuen otso batek; eta otsoak ere ikhusi zuen gizona eta, zilhoaren barnetik, otsoak oihu egin zion :

— Gizon, gizon, hunat zato !

Eta gizona joan zen otsoaren ondora.

— Othoi, luza ezadozu zure aitzurra. Horri lothuz atherako naiz. Hlabethe huntan hemen naiz, ez jan ez edan gabe, goseak hiltzen ari.

— Ha ! erran zion gizonak, gaichtakeriak egin ditutzu.

— Ez, jauna, nik sekulan ez dut gizonaren kontra gaichtakeriarik egin; bethi ongia egin diot, abere gaichtorik eta ihizirik baizen ez dut jan.

— Ez ditakena duk, hemen hola hatzeman haizenaz geroz, zerbait gatik hatzeman haute.

— Ez jauna, lehen gaichtoa izan banaiz ere, hementik harat ez naiz hala izanen. Luza-zadazu aitzur hori eta aitzurraren bidez atherako naiz hementik.

— Ez, ez eta ez.

— Bai, begira : gauza bat hitzemaiten daitzut ! Hementik atheratzen laguntzen banauzu, nik hementik harat hatchemanen ditudan ihizietarik erdiak zuretzat izanen ditut. Enetzat bertze erdiak.

Eta gizonak maite baitzuen berak ere zerbaiten irabaztea, orduan luzatu zion aitzurra eta otsoa athera zen kamporat.

Orduan otsoak erran zion :

— Ha ! jauna ! Izigarri gose naiz, hiru egun ez dudala ez jan ez edan. Jan behar zaitut.

— Ni ?

— Bai, jatuna. Gosea bainiz.

— Bena eztakizuia, zuk, ongi-eginaren ordaina ez dela hori ?

— Zer ba ?

— Ongi-eginaren ordaina, sariaren emaita !

— Ez, ez, ez, ez da hala.

— Ba ! lekhukoari galdatu behar diogu.

— Bai, galda dezakegu.

Eta abiatu ziren lekhuko bilha, eta horra asto bat. Asto hura bere nagusiak eremana zuen Omako errotara, — (Oma eiki han da, hango auzoetarik) — zaku bat arthorekin, eta zakua bizkarretik khendu-eta, makhila-ukhaldi batekin larre mendirat igorria zuen.

Eta biak astoari hasi ziren galdez :

— Errazu, zer da ongi-eginaren ordaina ? zer izaiten da ?

Ta erran zeien :

— Ongi eginaren paga, makhila kaska.

Berari egin ziotena eiki. Eta otsoak :

— Aditu duzu ? Nik ere berdin nerrautzun.

— Bainan lekhuko bat ez da aski; behar dira biga.

— Bueno ! goazen orduan bertze baten gana.

Eta biak abiatu ziren eian bertze lekhuko bat atzemanen zuten mendian, eta hara hantchet acheri bat. Eta acheriari galdatu zioten :

— Behazu, adichkidea, ongi-eginaren saria, zer ditake ?

— Ongi-eginaren saria ?

— Zer ongi-eginen ?

— Ba, otsoak erran zion : hor nindagon azken hiru egun hootan, ziloan hatzemaña ta ezin athera, ta goseak hiltzen ari,

hunek gizon, hunek hortik athera nu; eta, orai, nik hau jan nahi : eta hunek erraiten daut ez dela hori ongi-eginaren saria.

— Ha ! hori ... hori ... hori ! ez dakigu baa; hori ikhusi behar !

— Ja ikhusia da-ta.

— Nuntik athera zaitu ?

— Hor berean da ziloa : hortarik.

— Goazen, ikhus dezagun zilo hori.

Hiruak joan ziren ziloaren ikhusterat. Eta ikhus-eta, otsoak erran zuen :

— Hortik athera nau. Eta zer diozu ? zer egin behar diot gizon huni ?

— Ez duk... ez duk hori aski. Nik ez dioiat trenka auzia. Sar hadi hor, eta athera hezala ene bistan. Ene aitzinean atheratzen bahu, orduan erranen deat.

Otsoa sarthu zen.

— Bueno ! luza eni aitzurra, dio otsoak beheretik. Ta acheriak ihardesten :

— Eta, orai zer nahi duk egitea ?

Gizonak otsoa han utzi zuen; eta hil zen. Orduan gizonak pensatzen du.

— Bai, ongi duk. Nik ere emanen diat hiri zerbait.

Eta hala juan ziren etchera, emanen ziozkala bi oilasko. Bazakien eiki acheriak maite zituela oilaskoak. Gizona sarthu zen etcherat eta emazteari erran zion :

— Errazu, hor athean badugu acheri bat. Bi oilasko badiozkat hitzemanik.

— Oilaskoak acheriari ? acheri dohakabea ! Hemen dela ? Chakurra nun da ?

Eta chakurra huiatu zuen. Eta ikhusiko zinuen gure acheria, acheri ongi-egilea lauhazka juan eta gibeletik chakurra. Bainan ez zuen hatzeman, sasi arte batean sarthu baitzen. Bertze-la gaur ez zitakeen bizirik. Eta hori hala bada, sar dadila kalabazan.

Bai, gai hori ber-bera kaustu dut ichtorio batzuetan Pazifik itsas-erditan bizi diren jendetan. Horra nola biz-pa-hiruetan

munduaren itzulia egina duten asko gai gerthatzen zauzkun gure herrian.

Bainan ez da bakharrik herria mintzo. Gutartean mendiak ere berdin, badituzte beren izenak eta badute guri zer erran. Ez izena bakharrik, ainhitz alditan ichtorioak ere bai, doi-doia erran dudana Nabarniz zerbait erraiten daut niri eta hango lagunari berdin. Han bada, erramu zaharren erdian San Migel, ermita ederra; eta mendi harek ene lagunari, eni bezala, erraiten dauku San Migelen kondaira.

Ez da izena bakharrik. Atcharre mendian ere badira ichtorioak, eta hango mendia ez da bakharrik bere izenaz mintzo, ichtorioak ere hartaz mintzo dira bethi. Eta herriak, mendiak, ibarrak eta hibaiaak guri mintzo dira. Ez bakharrik beren izenaz — (izenak eskual-izenak baitituzte, bai eta asko ichtorio bada heieri buruz. Eta bederen paperrean mntza diton, eskual ahoak motheltzen badire ere, behar ditugu gai horiek, ahalaz oro, bildu, horietaz dagoena eta horietarik zerbait ikhasi.

BARANDIARAN-go JOXEMIEL.

